

**LACANIAR ALORREKO FORMAZIO
KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN**

“JAKINMINA”

2015-2016 IKASTURTEA

15-2016

Koordinaketa batzordea

Juan del Pozo, Mikel Plazaola, Maite Agirre

Antolaketa batzordea

Bittori Bravo, Izaskun Eceizabarrena, Pilar Herze, Asun de Paul, Xabier Oñativia,
M^a Jesús Zabalo, Tereko Zaballa.

Argibidea

Maite Agirre

943321186

maite_aguirre@hotmail.com

Juan del Pozo

636139811

juanpozo@arrakis.es

JAKINMINA. NIF: G 20712378

Eusko Lege Biltzarrak 1988ko otsailaren 12an onartutako 3/1988 legearen baitan.
AS/ G/08720/2000 zenbakiaz inskribatutako elkarte.

WEB: www.formacionesclinicascampolacanianopaisvasco.org

LACANIAR ALORREKO FORMAZIO KLINIKOAK
EUSKAL HERRIAN
“Jakinmina”

Lacaniar alorreko formazio klinikoak Euskal Herrian (LAFK) eska-kizunekiko anitzak eta egokituak dauden esparruak dira. “Jakin nahi” batetan kokaturik daudenei zuzendua izatea da, gure ustetan, ardatz nagusia.

LAFK beraz, psikoanalisian interesaturik dagoen edonorentzako irakas-kuntza esparru ireki bat da.

Bere baitan egiten den jarduerak psikoanalisian, urtez urte, prestakuntza sendo eta jarrai bat gure esparruan, Freud eta Lacan hain zuzen ere, egitea baimentzen du.

Honez gain Jakinminak, Donostiako San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoarekin duen hitzarmenak, klinikarako hain oinarritzkoa den Erien Aurkezpena ahalbidetzen du, non analistek, kontsulta pribatue-tara hain maiz gerturatzen ez diren patología sakonak aurrez aurre ikus ditzaketen.

Bere xedean egiten diren kasu klinikoan azalpen eta erien aurkez-penetara azaldu ahal izateak, gure egungo ondoezen eta sintomen ulerkuntza, abiapuntu kliniko batetik egiteko aukera zehatza eskaintzen dute. Bere etikara iritsiaz, hau da, ondoren interpretatuko duen psikoa-nalista batengandik pazientea entzuna izatera, psikoanalisiak galdeka-tuak izango dira sintoma eta ondoeza hauek.

2015-2016 ikasturteko aktibitateak, psikoanalisiak gure gizarte eta garaia- ren ondoezei ematen dien erantzunetan interesaturik dagoen edo-nori zuzenduak daude, psikoanalista, psikologo, psikiatra, Osasun men-talean diharduten langileei, mediku, filosofo, irakasle, ikasle eta orokorki, edozein jakintza arlotik, gaur egungo gizartearen adierazgarri diren aurrerakuntza zientifikoek, subjektuarengan duten eraginaren aurrean, psikoanalisiaren eskaintzan interesaturik dagoen edonorentzako.

Ez da beste jarduerarik, subjektua, bere eskaria adierazterakoan egi sin-tomatikoa adierazten duena bezala harturik, beregan hunkitzen duen inkontzientearen zergatira zuzenduko duenik.

Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoak Euskal Herrian, 1998an hasi zene-tik, jarraian, hemezortzigarren kurtsoari ekingo dio 2015-2016 ikastur-tean, bertan sei modulu proposatzen direlarik:

1/ MINTEGI TEORIKOA

Arren (Aún)

20. Mintegia Jacques Lacan (1972-1973)

Dela zortzi urte, 2007-2008 ikasturtean Jakinminan iada landutako testu batetara gatoz berriro aurten. Baina, orduan heldu geniolako bate-tik, eta mintegi honek suposatzen duenagatik bestetik, ezberdina aurkitzen dugu; psikoanalisia ulertzeko dugun moduan, bide berriak ireki ditugulako, zailak ziruditen testuak beste modu batera ulertu ditugulako eta, Lacanen azken elaboraziotan hobeto kokatzea ahalbidetu ditugulako.

Nire usteen, garai hartan landu genuen *Encore* hartan, bi ondorio zehatz eta nabariak hazpimarra daitezke:

Aurreko ikasturtetan 17., 18., eta 19. mintegien irakurketan bideratzeko gai izan garela, beren zailtasuna dela eta bestela ezinezko zitekeena, eta gogotsu egin izana gainera.

Beste ondorioa, psikoanalisian bi ikusmolde-tara begirada irekitzea: *lalange*-ra batetik eta sintomaren gune hilunean kokatzen den lingoai aurreko gozamen-erara bestetik, honekin subjektua aurrez aurre jarriko da eta gozamen autistiko batetan finkatu ordez, beste erantzuteko aukerak sortuko ditu. Akabo beraz lingoaiak, sintomari buruz dena esan dezakeen ilusioa. *Esatea* aldiz, bizidunaren ekintzan bilakatzen da. Ekintza honek sintoma eta honek daraman gozamenarekin maneiatzea ahalbidetuko du, bizitzara lotuaz. Gure Euskal Herriko komunitate analitiko-ko beste hainbat gune epistemikoetan ere lan eremu hau behatu daiteke, non *lalangue* eta afektuek, inkontzientea lingoai gisa lehen ideiarekiko, gehigarri epistemiko ñabardura berriak irabazten dituzten.

Mintegi honetan amaituta ikusten ditugun sexuazioaren formulek ere, hiztun izakia-erentzak Beste gorputzaren gozamenaren eskuraezina azaltzen dute. Sexu proportzio/harremana ezinezko bada ere hiztun-arentzat, balitekenaren ilusioa etengabea da. Aurreko urteetako logika matematikaz Lacan formulatzen aritu dena honako hau da: proportzio sexuala ez dela ez-inkribatzeaz amaitzen, baina aldi berean lortu daitekeenaren irudikapena aldiz, ez da hain erraza baztertzen, eguneroko klinika adierazten duenez. *Encore* mintegi honetan hauzi horrekin eragin ahal izateko zenbait zehaztasun aurki ditzakegu. Maitasun berri baten aukera, non kontingentzia, iturri bilakatzen den. Beharretik ordez, erreal-etik zerbait beraz, impotentziatik ezinezkotasunera ordezkatzen doan maitasun berria.

Kontingentzia bat, hau da ez-inkribatzeaz amaitzen dena, eta sintomarekin, lingoaiaren ondorioz mugatua dagoen gozamenaren ordez-kari mugatu bat besterik ez den sintomarekin, berbera denaz gain ezer

gehiago itxaron gabe, egin ahal izateko bide berriak irekitzen duen kontingentzia. Freud ezkeroztik, transferentziak bere aurpegia erakutsia zuen. Analizantearen ase nahiak, gozamina eta ez-armonia baretuko zukeen haurtzaro garaiko gurasoekiko, subjektuaren eskaeraren errepikapena besterik ez zen.

Lacanekek mintegi honetan, analisia eta bere irteera zuzentzen duen maitasun berri bat proposatzen du. Maitasun hau ez errepikapen frustagarri bezala, baizik subjektua suspertuko lukeen imposible baten errekonozimendua. Baina oraingoan, subjektua iada proportzio sexualaren ezinez jabeturik eta bizi dugun gizarte kapitalistaren gehi-gozamen eskeintza orotatik, ehin batean bederen, sendatua.

Mintegi honetan Lacanekek hala dio: “Kontingentzia *ez-inskribatzeaz amaitzen da* horretan gorpuztu nuen. Zeren, han ez da elkar topo egite bat besterik, sintomen, afektuen, edonorengan bere exilioaren hurratsa markatzen duen guztiarena, bikotean topo egitea; ez subjektu bezala, hiltun izaki bezala baizik, bere harreman sexualaren exilioarena”.

Lakanier Alorreko Formazio Klinikoen Jardunaldi bateratua

XVI. Jardunaldi bateratua Madrilen burutuko da 2016ko maiatzaren 28an. Izenburua, erabat zehaztu gabe, *lotura modu berriak: kausak eta desioa* izango da. Bertan, ondorengo Kolegio Klinikoez hartuko dute parte: ACCEP Associació Catalana per a la Clínica i l’Ensenyament de la Psicoanàlisi, Galiziako Elkarte Psikoanalitikoak Santiago/Vigo Foroa, Associació de Clínica Psicoanalítica de Tarragona (ACPT), Madrilgo Kolegio Psikoanalitikoak, Col-legi de Clínica Psicoanalítica de Valencia, Lakanier Alorreko Formazio Klinikokoak/Asturiasko Foro Psikoanalitikoak, Jakinmina Lakanier Alorreko Formazio Klinikokoak Euskal Herrian, Seminari de Psicoanàlisi de Tarragona.

Jardunaldirako inskribapenak salneurri murrizketa izango du Formazio Klinikoko ikasle eta irakasleentzat.

2/ KASU KLINIKOEN AZALPENA

Gure ustetan, *kasu klinikoen aurkezpen* kasu klinikokoak eguneroko lanbide klinikokoan topatu ohi diren bezela lantzeko modu bat da, alegia, ordenamendu klinikoez interesatuen sendakuntzaren gidaritza-ereduekin bateratzen den gunea.

Bai mintegi teorikoa irakasteko, nahiz Euskal Herriko kideek aurkeztutako kasu klinikokoak lantzeko, Bartzelona, Bilbo, Donostia, Madril, Paris eta Pau, psikoanalisten partaidetza dugu.

Psikoanaliaren irakaskuntzan eta besterentzat adituak diren psikoanalistak.

Testuen mintegi eta kasu klinikoaren aurkezpenen egutegia

Arren

Jacques Lacanen 20. mintegia (1972-1973)

2015ko urriaren 17an

Bernard Nominé. Psikoanalista Paun.

I kapitulua.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Begoña Alegria.

Koordinatzaile: Mikel Plazaola.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

2015ko azaroaren 14ean

Ana Alonso. Psikoanalista Madrilen.

II kapitulua.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Teresa Velasco.

Koordinatzaile: Pilar Herze.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

2015ko abenduaren 12an

Mikel Plazaola. Psikoanalista Donostian.

III, IV kapituluak.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Arkaitz Irazabal.

Koordinatzaile: Tereko Zaballa.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

2016ko urtarrilaren 23an

Xabier Oñativia. Psikoanalista Donostian.

V, VI kapituluak.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Vanessa Rodríguez.

Koordinatzaile: Maite Agirre.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

2016ko otsailaren 20ean

Ana Martínez. Psikoanalista Bartzelonan.

VII kapitulua.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Mayi Sarasketa.

Koordinatzaile: M^a Jesús Zabalo.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

2016ko martxoaren 12an

Andrés Múgica. Psikoanalista Bilbon.

VIII, IX kapituluak.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Asensio Arteagoitia.

Koordinatzaile: Xabier Oñativia.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

2016ko apirilaren 16ean

Rithée Cevasco. Psikoanalista Bartzelona eta Parisen.

X kapitulua.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Josefina García de Eulate.

Koordinatzaile: Bittori Bravo.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

2016ko maiatzaren 21ean

Luis Izcovich. Psikoanalista Parisen.

XI kapitulua.

Kasu klinikoaren aurkezpena: Pablo Gallastegi.

Koordinatzaile: Juan del Pozo.

Lekua: San Sebastián Hoteleko Eguzki Aretoa.

Zumalakarregi etor bidea 20. Donostia.

Ordutegia: 10etatik 14etara.

3/ ERIEN AURKEZPENA

Psikoanalistek eginiko aurkezpen klinikoen praktika nagusiki Lacanengandik jaso dugu. Ospitale Psikiatrikoetako aurkezpen klinikoak aspaldikoak dira, baina Lacanen iritziz, bera psikoanalista izanik, garbi da aurkezpen hauek gehien bat psikoanalistei zuzenduak behar dutela izan. Ez ordea psikiatrei hala diren neurrian, psikoanalistei baizik.

Nire ustez horren arrazoia, eta zentzuzkoa iruditzen zait, honako hau da: psikoanalistek subjektu guztiengandik ikasi behar izatea. Ez soilik neurotikoengandik, hauek baitira maizen kontsultara jotzen dutenak; baita psikotikoengandik, nahiz eta hauek kontsulta pribatuetara gutxiagotan iritsi. Psikoanalista egitura kliniko guztietatik ikasi beharrean dago, kokapen subjektibo guztietatik eta psikotikoek jasaten dituzten fenomeno guztietatik, azken finean subjektu psikotiko batetaz esan dezakegun gauzarik xumeena, beste edozein subjektu bezalakoa dela hasteko, subjektu hiztun den neurrian, baina sarritan fenomeno nahiko bereziak pairatzen dituen subjektu bat dela, hauetatik asko ikasi dezakegularik.

Publiko zabal baten aurrean aurkeztutako gaixo batekin “elkarrizketa” mantentzea arazotsua suerta daiteke agian. Lacanek izendatzen zuen gaixoen kokapen subjektiboak errespetatzen duen elkarrizketaz ari gara eta elkarrizketa horren garrantzia azpimarratu nahi dut, zeren eta elkarrizketa ez bada, zer da?. Behaketa besterik ez da, zoologian bezala, beste gisan hartu norbait eta behatu. Eztabaida eta elkarrizketarako egokienetakoa ez den testuinguru batetan elkarrizketa mantentzea erien aurkezpenaren zailtasunetariko bat dela uste dut.

Eta, agian, zenbaitetan elkarrizketa mantentzea baliagarria izan daiteke gaixoarentzat edo eta baliagarria izan daiteke era berean gaixo hau zaintzen duten pertsonentzat, harekin lan egiten dutenentzat. Hau guztia noski, kasu bakoitzaren arabera.

Colette Soler

Zamudio, 99-06-18

Erien aurkezpenen egutegia

2015eko urriaren 16ean Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Bernard Nominé.

2015eko azaroaren 13an Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Ana Alonso.

2015eko abenduaren 11an Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Mikel Plazaola.

2016ko urtarrilaren 22an Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Xabier Oñativia.

2016ko otsailaren 19an Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Ana Martínez.

2016ko martxoaren 11an Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Andrés Mújica.

2016ko apirilaren 15ean Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Rithée Cevasco.

2016ko maiatzaren 20ean Donostiako S. Juan de Dios Ospitalean. Luis Izcovich.

Lekuak: Donostiako San Juan de Dios Ospitalean.

Ordua: Ostiraletan 18etatik 20tara.

Tereko Zaballa **koordinatzailea**.

4/ KLINIKA PSIKOANALITIKORAKO SARRERA-IKASTAROA

Aurten transferentzia landuko dugu. Erabakigarri den kontzeptu hau gabe, psikoanalisi pentsaezina zatekeen. Horrexegatik eta nahiz eta transferentzia gizakion bizitza arruntean ere gertatzen den, funtsezkoa da diskurtso analitikotik abiatuta, bere berariazkotasuna ikastea. Giza harremanetan hedatzen den identifikaziozko nahiz afektuzko zenbait fenomenoen lerrokatze baten azalpena ordez, hasieratik psikoanalisiarentzat baliagarri bilakatzen duen hori ikasten ahaleginduko gara.

Zeren, gure gizartean gaitzetsiak dauden men egite edo menpekotasun kutsua duten ezaugarriek, psikoanalisian sarrera ate baten esanahia dute; non analizante batentzat desioaren bideari irekiera ekar dakiok, hain zuzen ere subjektuen bizitzak zuzentzen dituen *Beste* horrekiko aldentzea. Analisi hasieran transferentziak, analizanteak bere desio inkontzienteari buruz zerbait sumatu dezakeela, bere sintomaren signifikantea, zenbait signifikanteekin asoziazio askearen lanera jartzen duela, esan nahi du; ez ordea jakintza bat sortzeko, eta ez bere sintoma *Bestearen* jakinduri itxi eta mingarriaren menpe jartzea. Eskatu edo agintzen duen *Bestearen* hitzetik, desioaren hitzaren *Bestera* ibilbidea dela esan daiteke.

Ibilbide horretan transferentzia eusten duen suposatu bat hedatzen da: badela jakinduri bat sintomari buruz, suposatu bati lotzen zaion jakinduri bat, subjektu suposatu bat, sintomari buruzko jakinduriaren

estatutua, dakien subjektu baten ustearekin bat datorrela. Analistaren aldetik transferentziaren maneiatzeak aldiz, aukera berri bat baliatuko du: ez direla transferentziaren onurak bakarrik desioaren hedadura ahalbidetzen dutenak, baizik eta azken finean subjektua bera dela inkontzientearen errealaz gailendua, sintomaren gune ilunean jarduten duen subjekturik gabeko jakinduria hain zuzen ere. Inkontzientearen jakintza gozatua beraz. Honek, transferentzia errepikapenetik zertan bereizten den azpimarratzea garrantzitsua dela suposatzen du. Lacan bera ahalegindu zen Freudetik at joaten, bestela esanda, transferentzia ez da ebazten, berriro neurosi batetan eroriaz, neurosi transferentzia-lean. Aldiz, analisiaren ondorioz, sakonki ezberdin den *Beste* bat da jada, zeren estatutu errealeko, hau da gozamenaz eta sentsuz haratago, inkontziente batekin aurrez aurre aurkituko da subjektua.

Landuko ditugun testuen artean:

Freud, F. (1911-1915) Trabajos sobre técnica analítica

Freud, S. (1895). Estudios sobre la histeria *Obras completas* (Vol. 1, pp. 29-168). Madrid: Biblioteca Nueva, 1972.

Freud, S. (1912). La dinámica de la transferencia (Vol. 5, pp. 1648-1653). Madrid: Biblioteca Nueva, 1972.

Freud, S. (1914). Recuerdo, Repetición y Elaboración *Obras Completas* (Vol. 5, pp. 1683-1687). Madrid: Biblioteca Nueva, 1972.

Freud, S. (1914). Observaciones sobre el amor de transferencia *Obras completas* (Vol. 5, pp. 1689-1696). Madrid: Biblioteca Nueva, 1972.

Freud, S. (1915-17). Introducción al psicoanálisis *Obras completas* (Vol. 6, pp. 2123-2412). Madrid: Biblioteca Nueva, 1972.

Freud, S. (1937). Análisis terminable e interminable *Obras completas*. (Vol. 9, pp. 3339-3364). Madrid: Biblioteca Nueva, 1972.

Lacan, J. (1966). La dirección de la cura y los principios de su poder *Escritos (1984)* (10 ed., Vol. I, pp. 565-626). Madrid: Siglo XXI.

Lacan, J. (1960-61). Libro 8: La transferencia. In J. A. Miller (Ed.), *El seminario de Jacques Lacan*. París: Paidós (2002).

Lacan, J. (1964). *Libro 11. Los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis* (Vol. 11). Barcelona: Paidós.

Lacan, J. (1967). Proposición del 9 de octubre de 1967 sobre el psicoanalista de la escuela. *Otros escritos* (pp. 261-277). Buenos Aires: Paidós (2012).

Lacan, J. (1967). La equivocación del sujeto supuesto al saber. *Otros escritos* (pp. 349-360). Buenos Aires: Paidós (2012).

Lacan, J. (1973). Introducción a la edición alemana de un primer volumen de los Escritos. *Otros escritos* (pp. 579-585): Paidós (2012).

C. Soler *Los síntomas de transferencia, Qu'est-ce qui fait lien?*

Jarduera honen koordinatzaileek Juan del Pozo eta Mikel Plazaolak Jakinminako dozenteen partaidetza izango dute lagun. Bide batez, beren lana eta ekarpenak eskaini nahi duten ikasle oren partaidetzara irrekiko da, ikasturtea dinamizatu asmoz.

Egutegia eta egitaraua 2015-2016

2015

Urriak 7 eta 21, azaroak 4 eta 18, abenduak 2 eta 16.

2016

Urtarrilak 13 eta 27, otsailak 10 eta 24, martxoak 9, apirilak 6 eta 20, maiatzak 4 eta 18.

Non: Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren egoitzan. Okendo kalea 5, 2. C. Donostia.

Noiz: Asteazkenetan 20,00etatik 21,30etara.

Mikel Plazaola eta Juan del Pozo **koordinatzaileak**.

5/ LACANIAR ALORREKO LOTURAK

Maurice Merleau-Ponty (1908-1961)

Jacques Lacanen garaikidea eta bere lanetan eragin zuzena izan zuen frantziar filosofoa. Henri Eik antolatutako, frantses psikiatrian eta psikoanalisian eragin handia izan zuen, Bonneval Kongresuan ere, hartu zuen parte Lacanekin batera.

Lacane, XI Mintegian, *Psikoanaliaren oinarrizko lau kontzeptuak*, M. Merleau-Pontyren hil ondoren argitaratutako *Ikusgaia eta ikusezina* liburuari, aipamen berezi bat egiten dio. Liburu honetaz baliatuz, Lacane, bulkadak eta bereziki begirada bulkada, era berri batean aurkezten ditu, begia eta begiradaren artean dagoen zatiketa azpimarratuz. Begirada, galtzen denaren gisa, ikusmenaren esparruan ikusten ez dena bezala aurkeztuko du.

Askorentzat, M. Merleau-Ponty'ren idazlan garrantzitsuen *Hautematearen fenomenologia* da. E. Husserltzat "*kontzientzi oro zerbaiten kontzientzia da*". Subjektua eta objektuaren arteko banaketa gardena eginaz. Baina M. Merleau-Ponty k zatiketa hori gainditu egiten du, gorputza kontutan hartzerakoan, gorputza, aldi berean gorputz-subjektu eta gorputz-objektu baita.

Horrela bere ondorioa atereaz: *Kontzientzi oro kontzientzi perzeptiboa da*. Gorputza aldi berean munduarekiko irekiera hautematzaila eta mundu horren sortzaila izango da. Pertzepzioaren lehentasuna azpimarratuko du, gorputzaren errealean oinarrituz eta konpromiso existentsial bat emanez.

Egutegia

2015: urriak 20, azaroak 17 eta abenduak 15.

2016: urtarrilak 26, otsailak 16, martxoak 15, apirilak 12 eta maiatzak 10.

Non: Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren Egoitzan. Okendo Kalea 5, 2. C.

Noiz: Astearteetan 20etatik 21,30etara.

Angel Murias eta Xabier Oñativia **koordinatzaileak**.

6/ IRAKURKETA MAHAIA

Arren

Jacques Lacanen 20. mintegi saioen irakurketa bati ekingo zaio.

Egutegia

2015: urriak 13 eta 27, azaroak 10 eta 24, abenduak 22.

2016: urtarrilak 12, otsailak 9 eta 23, martxoak 8, apirilak 5 eta maiatzak 17.

Non: Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren Egoitzan. Okendo kalea 5, 2. C.

Noiz: Asteartetan 20etatik 21,30etara.

Koordinatzaileak: Josune Aréjula eta Teresa Velasco.